

EDITORIALA

Eredugarria

Joan den astean Baionan bizi izan genuen eguna eta gaua gogoangarriak izan zitzaizkigun alde askotatik begira. Ordu luzez igarotzeak dakarren nekeaz gain bazen makina irrifarre, poza eta harrotasuna ere. Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aurkako aferak, bere lehendakaria Mixel Berhocoirigoin auzipetzen zelarik, Baionako epaitegian izan zuen hitzordua.

Ikusgarria zen bertan bildutako jende andana: laborariak, auzapezak, ordezkari politikoak, gizarte mugimenduetako eragile ezberdinak, hiritarrak... den-denak Laborantza Ganbarari eta bere militanteei bere sostengua eta elkartasuneko atxikimendua eskaintzeko asmoz. Aipatzekoak dira bertako militanteak epaiketaren ordu luzeak igarotzeko prestatuiko eraikinaren azpiko egitaraua. Aipatzekoa ere, -bestela ohitzen ari baikkara- epaitegiaren ondo-ondoan ezarritako estalkiaren inguruan poliziak izandako errespetuzko jarrera. Esan-guratsua bestetik, gaueko hamabiak luze jo eta gero epaiketa bukatu zelarik, zenbat jende egon nahi izan zuen azkenerarte Mixeli bere elkartasuna adierazteko. Berari eta epaiketaren lagundu duten abokatu eta lekukoei. Egunean zehar hiritar asko eta asko, eta gauean ere.

Itxaronaldi luze horrek merezi izan zuen, ordea. Epaiketa amaitu eta Mixelek eskainitako hitzak ahaztu ezinak bilakatzen dira norberaren muinean. Lehendabizikoz, giza legez, eskerrak eman bildutako jendarte guztiari. Bigarrenik, epaiketaren emaitza dena delakoa izanda ere -martxoaren 26an emango da jakitera-, Iparraldeko nekazarien mugimendua irabazpide fase berri batetan kokatu dela adierazi zuen. Eta azkenik, Euskal Herria eraikitzeke molde bat, zibila eta bortzarrik gabekoa, non gizartearen zilegitasuna irabazteko eta jendea erakartzeko irakasgai asko ditugun abertzaleok aldarrikatu zuen. Beste nazio eta lurralde askotako beste militanteekin batera.

Oraingoan, iparretik datorkigun haizea freskoa izanda ere berriztagarria, ilusionea piztutzeko modukoa, eta itxaropenezkoa da. Epaile batek ez du zapuztuko horrelakorik.

Langileak ez gara krisiaren errudunak **ABERASTASUNA BANATU**

Ekainaren 5a bitartean aberastasunaren bidezko banaketa lortzea xede izango duen kanpaina egingo du ELAk herri eta enpresetan

Aberastasunaren bidezko banaketa lortzea. Hori da ekainaren 5a bitartean ELAk egingo duen kanpainaren helburua. Egitasmoak XII. Kongresu Konfederalak aho-batez onartu zuen ebazpen bati erantzuten dio. Handia da ELAk planteatzen duen erronka. Komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak datozen hilabeteetan ELAk izugarriko ahalegina egingo duela nabarmentzen du.

“Lan Munduko Notiziak-en ale berezia kaleratu dugu, Hegoaldeko azken txokoraino zabalduko dugun argitalpena. Gainera, enpresetan eta gure herrietako kale guztietan kartelak jarriko ditugu. Material ugari ari gara sortzen: pankartak, pegatinak, afixak... Lantokietan eztabaidak izango dira, gure mezua langile guztien artean zabaldu nahi dugulako. Eta, noski, eskualde guztietan izango dira mobilizazioak eta ekintzak: hitzaldiak, manifestazioak, bilkurak... Kanpaina ekainaren 5ean amaituko da, ostirala, Bilbon egingo den ekitaldiarekin”.

Egoera zaila bizi dugu langileok. Gobernuek eta patronalek eurek sortu duten krisi egoera langileok ordaintzea nahi dute. ELAk argi du hori onartezina dela, eta kanpaina honen bidez bidegabekeri horri aurre egin nahi dio. “Argi dagoen bakarra, zera da: soldadak ez dira krisiaren errudunak. Langileok gero eta parte-hartze txikiagoa dugu aberastasunaren banaketan. Aberastasuna oso gaizki banatuta dago, eta lan errentek bilakaera horretan izan duten jaitziera nabarmentzekoa da”.



Adolfo Muñoz, Txiki, y Mixel Lakuntza presentaron la campaña el 28 de enero en Iruña; el día anterior la presentación fue en Bilbo

ELA llama a movilizarse en defensa de un mejor reparto de la riqueza; son necesarios más salarios, más gasto social y más justicia fiscal

La clase trabajadora no debe pagar una crisis de la que no es responsable. Los salarios no tienen nada que ver con la actual coyuntura económica

EL ÚNICO CAMINO ES LA LUCHA CIVIL Y DEMOCRÁTICA

Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general de ELA, niega legitimidad a ETA y defiende los espacios de lucha social, civil y democrática. Muñoz reitera que ELA sólo cree en el compromiso militante de su gente, en su capacidad de organización y en la confrontación democrática de los proyectos. “Ese ha sido y es el compromiso de ELA”.

-ETA ha hecho públicas nuevas amenazas y revalida su estrategia anunciada tras la ruptura del alto el fuego permanente. ¿Qué valoración hace ELA?

-Las amenazas que vierte son absolutamente rechazables. ETA en su comunicado quiere recordarnos que el único camino para ella es la lucha

armada y que su papel como organización armada, no puede ser discutido. Tras el fracaso del último proceso negociador y con su vuelta a la actividad armada, ETA quiere cerrar cualquier discusión sobre su estrategia, polarizada sobre esa actividad armada. ETA, desgraciadamente, vuelve a afirmar en ese comunicado que no tiene confianza en las luchas civiles, sociales y políticas.

-Aparece contra determinadas infraestructuras (TAV...) que están siendo socialmente contestadas y contra las que trabajan determinados movimientos sociales y sindicatos, entre los que esta ELA.

-Si, pero no deja de ser una huida hacia delante. ETA busca legitimidad

como organización armada en aquellas luchas sociales –y remarco lo de sociales– que discuten políticas concretas de los gobiernos. Hay que decirle no. Ese espacio no es suyo, en absoluto le pertenece. Es inaceptable el intento de apropiación de esos espacios. Las luchas sociales tienen por objeto ganar a la mayoría de la sociedad y para ese trabajo no necesitamos de ninguna vanguardia armada; al contrario, son espacios de actuación completamente incompatibles. ELA así lo cree: no creemos en otro camino que no sea el de socializar los temas que nos preocupan y las alternativas que proponemos. Eso es lo que debe hacer cada organización en el campo de trabajo en el que actúe. No hay otro camino.



Egoera honetan, langileon mobilizazioa beste aukerarik ez dagoela uste du Agirrezabalak. "Aberastasunaren banaketa aldarrikatzen dugu. Gure lan baldintzak hobetzea horren baitan dago. Eta ziur gaude mobilizatzen bagara, politika publikoak aldaraziko ditugula. Aberastasunaren banaketaren inguruko eztabaida tabu bihurtu da gurean. Asko hitz egiten da sortzen den aberastasunaren inguruan, baina ez nola banatzen den. Eta errealitatea, honakoa da: gutxi batzuk ia pastel osoa jaten dute. Langileontzat gelditzen diren apurrak, gainera, gero eta txikiagoak dira. Zergatik gertatzen da hau? Nortzuk dira horren errudunak? Hori guztiaz hitz egin nahi dugu kanpaina honen bidez".

ELAk langileekin duen konpromisoa berretsi nahi du, beste behin. Agirrezabalak nabarmetzen duenez, ez goaz gobernu eta patronalen norabide berdinean. "Gure interesak eta beraienak kontrajarriak dira. Hazkunde ekonomiko garaian, enpresen etekinak bakarrik hazi dira. Azken hamabost urteotako hazkunde garaian, desoreka nabaria eman da aberastasunaren banaketan. Ondorioz, enpresen etekinek hirukoiztu egin dituzte soldaten kostuak. Lan merkatuan dagoen prekarietatearen eraginez, langile bakoitzeko lan-kostua inflazioaren azpitik hazi da. Krisiaren erantzule egin nahi gaituzten honetan, guk aberastasunaren banaketa zuzena eta orekatua exijituko dugu fiskalitatean, gastu sozialean eta negoziazio kolektiboan ere".



HAY ALTERNATIVAS

■ **Son imprescindibles un fuerte aumento del gasto social y reconocer más derechos sociales.**

Es necesario un incremento de las prestaciones económicas (desempleo, renta básica, pensiones...) y reconocer el derecho al acceso a servicios públicos (educación, sanidad, servicios sociales, vivienda...), así como aumentar las inversiones públicas en estas áreas. Inversiones todas ellas que son muy efectivas en creación de empleo.

■ **Para esos objetivos la política fiscal se convierte en un eje central.**

Las Haciendas tienen que recaudar más, y lo tienen que hacer de las rentas más altas. La lucha contra el fraude fiscal debería suponer un considerable aumento de los recursos. En relación al IRPF, es particularmente injusto que las rentas del capital tengan un tipo impositivo fijo único (del 18%), sin progresividad fiscal, mientras las rentas salariales van del 23 al 45%. En relación al Impuesto de Sociedades es necesario desandar el recorrido hecho, para que los beneficios de las empresas tributen en mayor medida.

■ **Es necesario el cambio del modelo económico y social.**

Que deje de privilegiar a quienes no quieren pagar impuestos y centre sus objetivos, vía gasto social, en las necesidades de la gente.

"INFORMAZIOA ETA EZTABAIDA UKATZEN DUTE"

Nafarroa eta Erkidego Autonomoko erakunde publikoek ohiko jarrera bilakatu dute parte hartze soziala ekidin eta informazioa ukatzearena. Gai askotan frogatu izan badugu jarrera hori, berebiziko garrantzia duten gaietan espresuki nabarmetzen da.

Darabilten politika fiskala erabat antisoziala da eta Kontzertu eta Konbenio Ekonomikoak errenta gehien dutenei mesede egiteko bideratzen dira. Horregatik, ezkutuan kudeatzen dituzten politika hauek argiro erakusten dute demokraziari dioten begirune eskasa. Benetako informazioa eta parte hartzea sustatuko balute, ez lituzkete hainbat gauza hain erraz gauzatuko. Ondorioz, gizarte gaietan behar den eztabaida ekidin eta propagandarekin ordezkatu dute.

Beste hainbeste nabarmetzen da aurrekontuekin. Errealitate ekonomikoak gastu publikoa handitzeko ahalegin berezia eskatzen badu ere, onartutako aurrekontuek aurkako norabidean doaz. Beste behin, propaganda itzelarekin estali nahi dute gastua ekonomia baino gutxiago hazten dela edota gastua murriztu egiten dela Nafarroaren kasuan bezalaxe.

Beraz, inork kritika ez dezan, ekonomia eta gizarte gaien eremu erreserbatuaren hesia jarri dioten honetan, ELAk egoera hau salatu eta agerian utzi behar dela uste du. Horregatik gure ikuspuntua jorratuko dugu lantegi eta kalean ere, gure jendea, langile jendea mobilizatuz.

Amaia Muñoa, idazkari nagusiaren albokoa

→
-Una parte de la clase política aprovecha las actuaciones de ETA para arremeter y negar legitimidad a esas luchas sociales.

-Tampoco eso es nuevo. Ni aquí, ni en ningún lugar del mundo. ETA causa con sus acciones un indiscutible rechazo y conmoción y esa conmoción se pretende instrumentalizar para manipular las reacciones de la gente y negar legitimidad a esas luchas sociales. Es demasiado viejo como para que nos pille por sorpresa. Es una actitud que califica a quienes, por ejemplo desde el Gobierno o la patronal, lideran esos planteamientos. Les encantaría que se terminase criminalizando esas luchas sociales. Quienes así actúan dejan en evidencia su nulo nivel democrático. En nuestra opinión esas actitudes, que muchas veces provienen del poder político, son inadmisibles.

-O sea... para ELA no hay otro camino que perseverar en las luchas sindicales, sociales y políticas, con medios civiles y democráticos.

-No, no lo hay. Para los objetivos que el sindicato defiende, en lo sindical, social y político, no necesitamos a ETA; no queremos que nos sustituya ninguna vanguardia. El sindicato sólo cree en el compromiso militante de su gente, en su capacidad de organización y en la confrontación democrática de los proyectos. Ese ha sido y es el compromiso de ELA.

"ELAk uste osoa dauka bere jendearen militantzia konpromisoan, antolatze gaitasunean eta proiektuen lehia demokratikoan. ETAk ez du zilegitasunik; borroka sozial eta demokratikoen beharra dago"



Adolfo Muñoz, Txiki

MÁS MOVILIZACIONES EN ARIZNAVARRA

Una furgoneta reivindicativa recorrerá las calles de Gasteiz

Las trabajadoras de la Residencia Ariznavarra de Gasteiz llevan casi un año en huelga luchando por un convenio propio y la homologación con las condiciones salariales de la plantilla del Instituto Foral de Bienestar Social de la diputación alavesa. Hablamos de meses de lucha, de reivindicación y movilización. Sin embargo, el paso del tiempo no hace mella en las trabajadoras, que continúan con las movilizaciones y anuncian que no van a parar hasta conseguir su objetivo.

Muestra de ello es la presentación el 30 de enero de la furgoneta que recorrerá las próximas semanas Gasteiz y gran parte de Araba. La responsable del sector en Araba, Izaskun Gana, exige a la Diputación que intervenga en el conflicto, pues es la única responsable. "Está en juego el modelo de servicios sociales que queremos".



● LA PLANTILLA DE FERSINT RECHAZA EL ERE

Los trabajadores y trabajadoras de Fersint de Trapagaran han rechazado el ERE presentado por la dirección y han exigido el pago de los salarios atrasados. Como protesta por el expediente de regulación convocaron un paro y una concentración frente a la sede del Gobierno vasco en Lakua para el 3 de febrero.

● CIERRES EN EL GRUPO BASAÑEZ

Los sindicatos ELA y LAB han denunciado que el grupo de empresas Basañez pretende cerrar tres de sus centros de trabajo y dejar en la calle a más de 40 empleados. Este grupo, que cuenta con 11 empresas, pretende cerrar las compañías Laminados Basañez, Maderas Basañez y Timber, situadas en Galdakao-Usansolo.

● NO AL ERE DE CEGASA

La plantilla de Cegasa de Gasteiz continúa con las movilizaciones en protesta por el Expediente de Regulación presentado por la empresa hace varias semanas, sin acuerdo con el comité. El ERE recoge el despido de 217 empleados en Gasteiz. El comité de empresa mantuvo una reunión con el Consejero de Trabajo, Joseba Azkarraga, el pasado 31 de enero para exponerle los motivos de su rechazo al ERE y exigir a la administración que no lo apruebe.

● CONCENTRACIÓN EN IRÚN PARA EXIGIR LA APLICACIÓN DEL CONVENIO UDALHITZ

Unas 500 personas se concentraron el 29 de enero ante el ayuntamiento de Irún para exigir la aplicación del Udalhitz. Los responsables de ELA denuncian que a pesar de que en presupuestos el consistorio irundarra aprobó una subida del 4,5 % para gastos de personal, ahora se niega a aplicar la subida pactada en el Udalhitz, que sería del 2,4% (1 punto por encima del IPC).

El ayuntamiento de Irún ha anunciado que aplicará el convenio en todos los apartados excepto el salarial, y plantea una subida para los empleados/as municipales del 1,4%, un punto por debajo de lo pactado.

ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ALDE

Parte-hartze politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea



Kontzentrazioaren helburua erabakia gaitzestea, atxilotuak berehala aska ditzatela eskatzea eta parte-hartze politikorako eskubidea babes dadila aldarrikatzea izan zen.

ELAren ustez berriro ere adierazpide politiko bat oso-osorik ilegalizatzeko atarian gaude. Modu horretan, hitza eta bozka izan nahi duten milaka herritarrei parte hartze politikoaren eskubidea ukatu egiten zaie.

Erabakiok PSOEren Gobernuak egoitza politikoan hartu ditu. Espainiako gobernuak, erabaki hauei "justiziazko" itxura eman nahian, ez du zalantzarik botere judiziala horretara bideratzeko. Bide horrek emango duen emaitzaren jakinean dago, azken finean "euskal gatazkari" buruz egitura judizial espainiarrak guztiz auresangarriak dira, zoritxarrez.

ELAk, eskubide zibil eta demokratiko guztiekin konprometiturik, eskubideon urraketa ahalmentzen duten salbuespen legeen indargabetzea exijitzen du eta, bide batez, bere elkartasuna adierazi nahi die atxilotutako pertsoneri eta bere familiariekoei.

La detención y encarcelamiento de personas en posesión plena de sus derechos civiles y políticos es un hecho muy grave, inadmisible

ELAko ehunka ordezkari Bilbon bildu ziren otsailaren 2an eskubide zibil eta politiko osoak dituzten pertsonen atxilotzea eta espetxeratzeko. Sindikatu honen iritziz egoera hori onartu ezinako zerbait larria da eta larritasun horretara edozein gizarte demokratikoa ezin da ohitu.

Urtarrilaren 23an Espainiako polizia zortzi lagun atxilotu zituen, eta beste hainbat lagun enxeak miatu zituen.

NEOLIBERALISMOAK PORROT EGIN DU

ELAren ordezkari bat Munduko Gizarte Foroan izan da

Orain jokoan duguna da ea zein gailentzen den: munduko sistema ekonomikoa, neoliberalismoan oinarritua edo, bestela, herritarren interesak, eta hortaz, eskubide sozial garatuagoak eta aberastasunaren banaketa hobea". Ideia hori azpimarratu nahi izan zuen ELAko urtarrilaren 25etik 30era bitartean Brasilgo Belem hirian egindako Munduko Gizarte Foroan.

Hainbat izan ziren sindikatuaren izenean Mikel Novalek, Gizarte Politikaren arduraduna, eta Saioa Igeregik, Nazioarteko Saileko kidea, eraman zituzten proposamenak. "Beharrezkoa da aberastasuna zuzenago banatzea, enplegu gehiago sortzea, prekarietatea ezabatzea, eskubide sozial gehiago onartzea, eta politika fiskala bidezkoagoa eta solidarioagoa izatea". Izan ere, Brasilen beste behin argi gelditu denez, neoliberalismoak porrot egin du.



ELAko 300 kide izan ziren Baionako Epaitegiaren aurrean EHLGri eta Mixel Berhocoirigoini elkartasuna adierazten

ELKARTASUN OSOA LABORANTZA GANBARARI



Jende andana bildu zen Laborantza Ganbarari elkartasuna adierazi asmoz.



Joseph Bove ekintzaile frantziarrak ere babesa eskaini zion Mixeli.

Egun luzea izan zen urtarrilaren 29koa Baionan. Gau erdira arte itxoin behar izan zuten bertaratutako ehunka kide eta sindikalistek Euskal Herriko Laborantza Ganbarako presidente Mixel Berhocoirigoin agurtu ahal izateko, epaitegian deklaratu ostean. Defentsaz arduratu ziren abokatuak alboan zituela, txalo artean igo zen hunkiturik taula gainera. Eskerrak eman ondoren, Mixel Berhocoirigoinek adierazi zuen Laborantza Ganbararen proiektua indartsu dagoela eta urtarrilaren 29aren ondoren gauza asko aldatuko direla onerako. "Gaurtik aurrera gauzak ez dira berdinak izango", zioen txaloen artean.

ESPARRU GUZTIETAKO JENDEA

Goiz-goizetik hasi zen jendea inguratzeko Justizia Jauregira, eta baita metro gutxitara Laborantza Ganbarako kideek prestatu zuten karpa erraldoira ere. Dena den, arratsaldeko lehen orduetan karpa txiki geratu zen, eta kanpoaldean paratu behar izan zuten askok eta askok. ELAko 300 bat kide ere han ziren, Adolfo Muñoz, idazkari nagusia, eta Batzorde Eragileko hainbat kideekin batera. Euskal Herriko gizarte-



Mixel epaiketaren une batean, atzean abokatuak dituela.

ko ordezkari ugari ere bertaratu zen Baionara. Jende ezagunen artean, Kotte Ezenarro Kontselari Nagusia, Joseph Bove, Via Campesinako edo Gerard Onesta, Strasburgoko parlamentuko presidente ordea. Aipagarria ere bada, Manu Robles Arangiz Fundazioko kideen presentzia antolaketa lanetan.

GAUERDIA ARTE EPAITEGIAN

Hamar orduko epaiketa saioaren ondoren, epaile nagusiak epaia martxoaren 26an jakitera emango duela adierazi zuen. Hainbat gorabeheraren ondoren, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen izena aldatzeko eskatu zuen fiskalak, eta kartzela zigorra eta

isun eskaerak erretiratzea deliberatu zuen, aretoan zirenen harridura keinuen artean. Izenaren ingurura mugatu zuen eztabaida politikoa, Laborantza Ganbara erabiltzea legez kanpoko dela azpimarratuz. Abokatuak argi eta garbi adierazi zuen eskaerak ez zuela ez hanka ez buru, eta izena mantentzeko eskubide osoa zutela gaineratu zuen.

PROIEKTUAREKIN JARRAITZEKO KONPROMISOA

Mixel Berhocoirigoinen izenaren eztabaidaren gaineratik adierazi zuen bere azken xedea ez dela "tresna instituzionala izatea", eta ironikoki zera gaineratu zuen: "inor ez zaigu agertu Ainhize-Monjoloseko egoitzara ustez Paueko ganbera zela esanez", epaiketa aretoan zirenen irrien artean.

Adolfo Muñoz, ELAko idazkari nagusiak, bere aldetik, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lan eredugarria goraiatu zuen berriro ere, eta sindikatuen sostengu osoa izaten jarraituko duela gogoratu zuen kazetarien aurrean.

www.ela-sindikatu.org

ELA  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.org

Franqueo concertado
nº 08/207